



Arartekoaren ebazpena, 2011ko apirilaren 7koa. Horren bidez, Abanto-Zierbenako Udalari gomendatzen zaio udaleko arkitekto aholkulariak bere lanpostua bete zuen bitartean burutu zituen funtzioei buruzko ziurtagiria egin dezan.

Aurrekariak

1. (...) jaunak erakunde honetan kexa bat aurkeztu zuen Abanto-Zierbenako Udalak udal arkitektoaren lanpostuan burutu zituen funtzioak zehazten zituen ziurtagiria ukatu baitzion. Lan horrek 1981eko azaroaren 1etik 2010eko ekainaren 30era arte iraun zuen.

Zehazki, udalean aurkeztu zuen eskaeran, zenbait posta elektronikoko bidez eta 2010eko abenduaren 30ean sarrerako erregistroan aurkeztutako idazkiaren bidez helarazi zuen horretan, arrazoi profesionalak zirela eta, bi ziurtagiri behar zituela zehazten zen. Helburua zen bere esperientzia egiaztatzea Bizkaiko udal batek iragarritako lizitazioan parte hartu ahal izateko. Izan ere, alderdi horrek ezarritako esleipen irizpideen % 70era arteko balioa zuen. Deialdiaren oinarriekin bat eginez, ziurtagiriak urtarrilean aurkeztu behar zituen, burututako honako funtzio hauek zehaztuz:

- Hirigintza alorreko espedienteak eta edozein lan baimen mota emateko txosten teknikoak egitea.
- Antolamenduko plan partzialak izapidetzea eta kontrolatzea, xehetasun azterlanak, birpartzelazio edota konpentsazio proiektuak eta urbanizazio proiektuak.

Udalak soilik egin zion aurretiazko zerbitzu moten ziurtagiria, interesdunak burutu zituen funtzioak zehaztu gabe. Daten inguruan egon zen akats bat zuzendu eta gero, ahoz adierazi zioten ez ziotela berak burututako funtzioen ziurtagiria egingo.

Kexa izapidetzeko onartu eta gero, arartekoak Abanto-Zierbenako Udalari eskatutako ziurtagiria ez egiteko zeuzkan arrazoiengatik inguruko informazioa eskatu zion. Horrez gain, udaleko idazkariarekin ere telefono bidezko kudeaketak egin genituen kexagileak burutu zituen funtzioen ziurtagiria egitea galarazten zuten arrazoiak ezagutze aldera. Hala ere, ez genuen emaitza positiborik lortu ziurtagiria eskatutako terminoetan egitea saihesten zuten arrazoiengatik.

2. Abanto-Zierbenako Udalak, administrazio orokorreko teknikariak izenpetutako idazkiaren bitartez, gure informazio eskaerari erantzun zion, laburbilduz honako hau adieraziz:
 - Erreklamatzailak arkitekto lanpostua bete zuela, lan-erregimenean, 1981eko azaroaren 1etik 2010eko ekainaren 30era arte, azken data horretan lanpostua erregelamendu bidez bete baitzen.





- Interesdunak hala eskatuta, aurretiazko zerbitzuen ziurtagiria egin zela, ekainaren 25eko 1461/1982 Errege Dekretuaren 3. artikuluan xedatutakoari jarraiki. Dekretu horrek herri-administrazioan aurretiazko zerbitzuen aitortzeari buruzko abenduaren 26ko 70/1978 Legea aplikatzeko arauak ezartzen ditu, I. eranskinean aipatutako ereduaren arabera.
- Lanpostuaren funtzioei dagokienez, administrazioan edozein arkitekto lanposturi atxikita dauden funtzioak direla. Horrez gain, zera eranstean du: *“Las funciones de la plaza de Arquitecto, de las que se adjunta copia, han podido ser objeto de solicitud en la Secretaría de este Ayuntamiento. Un ejemplo de esa posibilidad queda reflejado en la convocatoria para cubrir reglamentariamente la plaza de Arquitecto que ocupaba D. (...), B.O.B. nº 27 de 10 de febrero de 2010, como se señala en la base ‘4. ejercicios’”*
- Laburbilduz, udal horrek interesdunari 1461/1982 Errege Dekretuan ezarritako aurretiazko zerbitzuen ziurtagiria eman diola eta hori dela langile guztiekin erabiltzen duena inguruabar hori egiaztatze aldera.

Erreklamazioa ikusita, kexaren planteamendua eta azaldutako aurrekariak aztertu ondoren, egokitzen jo dugu hurrengo gogoetak zuri helaraztea:

Gogoetak

1. Kexa honek mahaigaineratu dituen kontuak kokatzeko, aintzat hartu behar ditugu administrazio prozedurari buruzko xedapen orokorrak, bai prozeduraren hasierari dagokionez, bai ebazpenari dagokionez. Hori guztia Herri Administrazioen Araubide Juridikoari buruzko azaroaren 26ko 30/1992 Legeak arautzen du -AJAPEL- (VI. kapitulua).

Interesdunak hala eskatuta hasitako prozedurak, beste kontu batzuen artean, eskatutakoa argi eta garbi zehazten dituzten gertakariak, arrazoiak eta eskaera barne hartu beharko ditu (AJAPELaren 70. artikulua).

Lege horretako 89. artikulua, aldiz, ebazpenaren edukia arautzerakoan, zera adierazten du:

- Prozedura amaitzen duen ebazpenak interesdunak mahaigaineratu dituen kontu guztiak erabakiko ditu.
- Horrez gain, ebazpena interesdunak egin dituen eskaerekin bat etorriko da.
- Ebazpenean erabakitakoaren berri eman behar da eta, 54. artikuluan aipatutako kasuetan, erabaki hori arrazoitu egin behar da. Horrez gain, horren aurka aurkeztu daitezkeen errekurtsoen berri emango du, bai eta zein administrazio organoren edo organo judizialen aurrean aurkeztu behar den eta horretarako dagoen epea zehaztuko du ere.





- Administrazioak ezingo du inola ere ebazpena emateari uko egin isiltasuna, iluntasuna edo kasuan-kasuan aplikagarriak diren legezko aginduen hutsunea aitzakiatzat hartuz.
2. Interesdunak bere eskaeran Abanto-Zierbenako Udalean burutu zituen funtzioen ziurtagiria zergatik behar zuen argi eta garbi adierazi zuen. Hori gutxi balitz, ziurtatu beharreko testuaren idazketa ere eman zuen.

Eskatu zuen ziurtagiria udal arkitektoen funtzioak izan ohi diren funtzioei buruzkoa zen, hau da, inoiz ez da zalantzan jarri interesdunak ziurtatzea nahi zituen funtzioak ez datozela bat benetan burutu zituen funtzioekin udalean bere zerbitzuak eskaini zituen denboraldian zehar.

3. Bestalde, udalaren jarduerari dagokionez, aplikatu beharreko araudiaren testuingurua eta erakunde honi helarazitako informazioa aintzat hartuta, ondoren azalduko ditugun gogoetak egin ditugu.

Hasteko, emandako aurretiazko zerbitzuen ziurtagiriak ez zion eskatutakoari erantzun. Izan ere, ez zituen gaineratu interesdunak burutu zituen funtzioen edukia.

Bigarrenez, interesdunak ez du eskatutako ziurtagiriaren –burututako funtzioak zehazten zuena- ukapenaren ebazpen arrazoiturik jaso.

Hirugarrenez, udalak erabili duen ziurtagiri mota interesdunaren xedearekin zerikusirik ez duten helburuetarako egin den eredu da. Izan ere, eredu horren helburua zera da: funtzionarioek, hirurtekoak eskatze aldera, administrazioari eskainitako aurretiazko zerbitzuak egiaztatu ditzaten, horien araubide juridikoa edozein dela ere. Hortaz, egindako ziurtagiria, partziala izateaz gain, ez dator bat interesdunak eskatu zuenarekin. Interesdunak berriaz adierazi baitzuen edukia deskribatzen zuen ziurtagiria behar zuela lizitazio batean aurkezteko. Lizitazio horretan, esleipen irizpideen artean, hirigintzako eta plangintzako alorretan xehatutako bi funtzioetako bakoitzak % 35aren balioa zeukaten.

Laugarrenez, informazio eskaeraren erantzunean, administrazio orokorreko teknikariak adierazi zuen lanpostuaren funtzioak edozein administrazioko arkitektoaren lanpostuari atxikita daudenak direla. Administrazioa ezagutzen duen edonork daki udal askotan arkitekto lanpostu bakarra dagoela eta arkitekto horrek hirigintzako arloan udalerrinari esleitzen dizkieten funtzio guztiak burutzen dituela baina, jakin badaki ere, toki erakundeek autoantolakuntzaren arloan daukaten autonomia zabalak, funtzio horiek betetzerakoan, era askotako antolakuntzako konponbideak eragiten dituela (hirigintzako kudeaketarekin lotutako kontuen ardura duten udaleko enpresak, plangintzaren, garapenaren eta kudeaketaren kontrola funtziorako kanpoko kontratazioa, arkitekto lanpostu bat baino gehiago, etab.).





Bestalde, lanpostuen edukia orokorrean definitzeko modurik ez dago. Ondorioz, benetako funtzioak egiaztatzeko beharra sortzen da eta hori dagokion ziurtagiriaren bidez egiten da. Edonola ere, are deigarriagoa da udalak ziurtagiria egiteari ezetz esan izana. Izan ere, dirudenez, ez zegoen inolako zailtasunik burututako funtzioak egiaztatzeko, *"edozein administrazioko arkitekto lanposturi atxikita daudenak"* baitziren.

Erantzunean azaldu dute interesdunak arkitekto lanpostuaren funtzioak eskatu ahal zituela, arkitekto lanpostua erregelamendu bidez betetzeko deialdian islatzen den moduan, besteak beste. Udalak arkitekto lanpostua erregelamendu bidez betetzeko deialdia iragarri izana eta dagozkion oinarrietan bete beharreko funtzioak zehaztu izana, aurreko paragrafoan adierazitakoaren zentzuan, ez da onargarria arkitekto erreklamatzailak udalari lotuta egon zen denboraldian zehar burututako funtzioak egiaztatzeko. Horrek soilik egiaztatzen du iragarritako lanpostuan funtzio horiek beteko direla aurreikusitako delako. Edonola ere, edozein administraziotan hemen aipatutakoak edo antzerako alderdiak egiaztatzeko beharraren aurrean, argi dago deialdi baten oinarrietan iragarritakoa ez dela nahikoa.

4. Ondorioz, aurreko ataletan argudiatutakoari jarriki, Abanto-Zierbenako Udalak erreklamazioa egin duen arkitektoak erreferentziazko lanpostua bete zuen denboraldian zehar garatu zituen funtzioak egiaztatzeko beharra dauka, egindako eskaerarekin bat eginez.

Horregatik guztiagatik, gomendio hau egiten dugu, otsailaren 27ko 3/1985 Legeak -erakunde hau sortu eta arautzekoak- 11 b) artikuluan ezarritakoaren arabera:

7/2011 GOMENDIOA, apirilaren 7koa, Abanto-Zierbenako Udalari egina

1. Interesdunari, ahalik eta azkarren, arkitekto lanpostuan burututako funtzioen inguruan eskatu duen ziurtagiria egin diezaion.
2. Edonola ere, indarrean dagoen araudiak exijitzen dituen betebeharrekin eta baldintzekin bat eginez, egokia den ebazpena eman dezan.

